



steilas Eusko Legebiltzarrena

0-3 zikloari buruz hitz egiteko agerraldia

Aldez aurretik, eskerrak eman nahi dizkizuegu, hemen zaudeten guztioi Haurreskolak Partzuergoari buruzko gure iritzia eta aldarrikapenak entzuteko prest egoteagatik. Gure agerraldia gaika sailkatu dugu:

1.- Doakotasuna

Behin eta berriro esan dugu Partzuergoko kuotak oso garestiak direla. Familia askok ezin diete aurre egin kuota hauei, eta kontziliaziorako beste bide batzuk bilatu behar dituzte.

steilasek beti doakotasuna defendatu izan du. Zergatik? Zerbitzu publiko eta unibertsala dela ulertzen duelako.

Eusko Jauriaritzak etorkizunera begiratu behar du, gaur egun ia 20.000 haur jaiotzen dira EAEn. Eustateko datuen arabera, 2026.urtean 14.600 haur jaioko dira; hau da, hamar urtetan EAeko jaiotze tasa %27 jaitsiko da.

Honen aurrean, zer? Ez al da garaia arazoari aurrez aurre begiratzeko eta jaiotze tasa igotzeko benetan lagundu ahal duten neurriak hartzeko?

Familiek EAEn lehenengo bi urteetan haurreskolen zerbitzua doakoa dela jakinik, ez lukete errazago hartuko seme-alabak izateko erabakia?

Gainera, historikoki emakumea izan da zaintzaren ardura hartu duena, are gehiago krisi garaian. Izan ere, askotan bere lana utzi behar izaten du haurrak etxean zaintzen gelditzeko. Honen ondorioz, emakumea lan eremutik baztertuta gelditzen da, bere egoera sozioekonomikoa ahulduz. Beraz, generoren ikuspuntutik ere egoera larria da. Klase ertain-bajuei eragiten die batez ere, Jendarte kohesioan horrek duen eraginarekin.

Garaia da Administrazioak demografia zein generoa kontuan harturik haurreskolen doakotasunaren aldeko neurriak har ditzan.

steilasek beti aldarrikatu du haurreskolak benetan publikoak, denonak eta denontzat (unibertsalak) izan behar direla, hezkuntza sisteman daukagun 0-2 tarteak, benetan publikoak izan dadin aukera bakarra delako. Gure ustez, familia eta lana uztartzeko dugun aukeratariko bat da eta horretarako, haurreskolek doakoak behar dute izan. Eusko Jauriaritzak oso argi utzi digu doakotasunaren alde ez dagoela, zergatia ulertzen ez dugun arren. *Haurreskolak* Partzuergoari ez dio finantziario handiagorik emango eta hau bermatu ezean benetako publikotasuna eta unibertsaltasuna kolokan jartzen ditu. Gure ustez, EAJK hezkuntza ulertzeko bere modu klasista agerian utzi du, berriro ere. Hala ere, izugarri kezkatzen gaituzte gainontzeko alderdien jarrerak ere.

HEZIBERRIn, pribatu izanik publikoz mozorrotu nahi dutenen finantziaketa atera eta publiko izanik kudeaketa eta finantziaketaren zati oso esanguratsu bat pribatu dutenak (Partzuergoaz ari naiz) lege berriaren bidez sare publikoan txertatzea eskatzen dugu. Beste modu batez esanda: HEZIBERRItik ikastetxe pribatuak eta beraien finantzaketa atera eta Haurreskolak Partzuergoara sartu. Bada garaia ikastetxe pribatuen pribilegiozko egoera baztertzeko eta sare publikoaren lehenesteko.

Azken urteetako matrikulazio jaitsieraren eta jaiotze tasa beherakadaren eraginez, hezitzaileen ezinegona gero eta nabariagoa da, eta arestian esan bezala Eustaten datuen arabera, gauzak ez dira hobetuko.

Honen inguruan joan den ikasturtean ezarritako kuota berriek ez dute onurarik ekarri matrikulazio datuetan. Errenta estandarizatuak erabiltzen dituen koefizienteak eta kuota tarteen onurak txikiak dira. Errenta aitortpena eta familia ereduak kontutan izanik, etxe gutxitara ekarri du kuotaren merkataria; familien %9an, hain zuzen ere. Familien %80ak urtean 12 €ko igoera izan du eta beste %10a berdin gelditzen da. Beraz, datuak ikusita, Gobernu honek egin duen kuoten aldaketak ez du doakotasunaren bidea jorratu.

Beraz esan dezakegu kuota berriak iruzur bat besterik ez direla izan. Inongo inbertsio egin gabe ezin zen beste emaitzarik espero. Gobernuaren inbertsioa zerokoa bada, familien gain erortzen da zama osoa, modu batean ala bestean.

2.- Haurreskola txikiak

Haurreskolak Partzuergoara eratu zenean, hainbat udaletxe txiki atxikitu ziren, beraien udalerrietan itzelezko inbertsioak egin ondoren. Egun, matrikulazio beherakada dela eta herriko haurreskolak itzeko arrisku handia dagoela ikusten dute. Gogoratu nahi dugu, haurreskolen helburu nagusienetako bat herri txikiak umeak, herrian bertan geratzeko aukera izatea zela. Hori dela eta, eta

www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus

helburu hau defendatzeko, Nekazaritza Saila sartu zen Partzuergoa eratu zenean. Ikuspuntu horretatik, Haur Eskolak zerbitzu publiko bat dira, jendarteko kohesiorako balio estrategiko duena, eta ez negozio bat.

Gaur egun, herri txikietako familiek euren eskubideen urraketa bat pairatzen ari dira. Haurreskola zabalik mantentzeko hiru haur behar dira. Gainera, hiru haur soilik joatekotan, ordutegi berbera adostu behar dute familien artean. Zazpi ordukoa izango da, nahiz eta zortzi orduko kuota ordaindu. Herri askotan, gurasoek alboko herrietan matrikulatzen dute euren umeek, zortzi orduko zerbitzua behar dutelako, edo ezin dutelako adostu ordutegia beste familiekin. Horrela euren herriko haurreskolak ixten laguntzen dute.

Beraz, haurreskola txikietako zerbitzua, beste haurreskoletakoa bezalakoa izatea eskatzen dugu, 8 ordukoa. Familia guztiek berdin ordaintzen dute, baina ez dituzte eskubide berberak.

3.- Administrazioak Zerbitzu pribatuen aldeko apustua

2015eko azaroaren 27ko EHAA-n argitaratu zen 0-3 urte arteko umeentzako titulartasun pribatuko haur-eskolei zuzendutako 2015-2016 ikasturterako laguntzetarako deialdia. Agindu honen bitartez Gobernuak, berriz ere, zerbitzu pribatuen aldeko apustua egin du. Izan ere, 0-3 urteko haurrak eskolaratzen dituzten zentro pribatuen artean 24,4 milioi € banatuko ditu. Bitartean, lehen esan dugun bezala, *Haurreskolak* Partzuergoan Administrazioak iaz sasi-aldaketa bat egin zuen kuotak merkatuko zirelako aitzakiarekin. Partzuergoko beken diruaren banaketa moldatu zuen eta, horren ondorioz, familien %80aren kuota urtean 12 € igo zuen.

Adin desberdinetako haurrak gela batean elkartu behar direnean, ematen diren sareen arteko desberdintasuna ere aipatu nahi dugu.

- Ikastetxe pribatuetan 0 eta bat urtekoak badira, gela batean gehienez 7 haur egon ahal dira eta 0, 1 eta 2 urtekoak elkartzen direnean, 10 izan ahal dira, gehienez. Hau da, haurren adina kontuan hartzen da.
- Haurreskolak Partzuergoan, berriz, hau gertatzen denean, ez dira haurren adinak kontuan hartzen. Beraz, gelak sortzean, 0 eta urte 1eko haurrak gela berean elkartu behar direnean, 10 haur egon ahal dira, pribatuan baino 3 haur gehiago, alegia.

Eta zein legetan oinarritzen da hau ezartzeko? Jakinda, 2008ko apirilaren 10eko dekretua aplikatzen du, haurreskoleen baldintza berezietarako bideratuta dagoena. Partzuergoak orokortu egin du dekretu honen aplikazioa matrikulazioaren arabera eta komeni zaionaren arabera.

Zergatik ez dira aplikatzen bi sareetan irizpide berdinak? Agerian gelditzen da, beraz, Hezkuntza Sailak sare pribatua lehenesten duela.

Beste gai bat ekarri nahi dugu mahai honetara. 0-2rako eskola pribatuak ikastetxe kontzertatuekin lotura dute eta izen emateko garaian puntu gehiago lortzen dituzte baremoan haur eskola batzuetara joan diren haurrak. Hau da, 0-2 urteko zentro pribatu askok eskola ibilbidea dute. Berriz, Haurreskolak Partzuergora joaten direnek ez dute inongo loturarik Eskola publikoekin.

Eskandalagarria iruditzen zaigu, adibidez, Opuseko haur eskola pribatuak titulartasun berbera duten ikastetxeei atxikitzea, pribatuak 0-18 ibilbide osoa bermatuz. Herritarren eskubideak eta aukera berdintasuna urratuta, berriro ere. Esan dezakegu ikasleen onarpenerako araudia ([35/2008 Dekretua, martxoaren 4koa](#)), eta etapa honetako finantziazio eredia ez direla bateragarriak.

4.- Izen emateko epea

Egun dugun izen emateko epe garrantzitsua (irailean hasiko diren haurren datuak biltzen dituen) maiatzean izaten da. Hain berandu egiteak matrikulazio galera izugarria ekartzen dio *Haurreskolak* Partzuergoari. Zergatik? 0-3 pribatuaren izen emateko epea askoz arinago egiten delako, izen ematearen deialdi orokorrekin batera, otsailean hain zuzen ere. Beraz, Partzuergoak matrikulazio epea zabaltzen duenerako haur askok jadanik pribatuan dute egina matrikula.

Hau gutxi izango balitz, Administrazioak beste oztopo bat jartzen du, *Haurreskolak* Partzuergoan matrikula baieztatzeko aurre-ordainketa bat egin behar baita. Familiak zerbitzua erabiltzen ez badu, diru hori zergatik ez zaio bueltatzen? Hau ere, bidegabekeria da.

Hau ekiditeko eta aukera berdintasuna bermatzeko, **steilas** sindikatuek izena emateko epea aurreratzea eta aurre-ordainketa bat egin behar ez izatea eskatzen du. Bere garaian, HHan eta LHan sare desberdinen artean, adostu zen bezala matrikulazio epea bateratu bat jartzea; orain 0-3an zerbitzua ematen duten zentro guztien artean (Haurreskolak Partzuergoak eta eskola pribatu eta kontzertatuen artean) egin behar da. Horregatik gure apustua izen emate orokorra batera egitea izango zen. Honela, Administrazioak eskola publikorako egiten duen propaganda bera Haurreskoletarako ere da baliagarria eta 0-3 zikloak duen garrantzia nabarmendu daiteke.

www.steilas.eu

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eu

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eu

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eu

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eu

5.-Prestakuntza.

Lehen, Haurreskola Partzuergoko langileok, barneko formazioan parte hartzeaz gain, *Garatu* programako ikastaroetan ere parte hartzen genuen. Baina Hezkuntza Sailak Prest Gara ikastaroetatik at utzi gaitu. Administrazioarako ez omen gara garrantzitsuak. Horrela prestigiatzen du gure lana?

Administrazioak guretzat duen jarrera hau mingarria da eta Partzuergoko langile guztiak Prest Garan parte hartzeko aukera izatea eskatzen dugu, bere garaian *Garatu* programarekin gertatzen zen moduan.

Ildo beretik **steilas**ek argi du, *Haurreskolak* Partzuergoko langile guztiok eskubidea izan behar dugula IRALE ikastaroetan liberazioan bitartez parte hartzeko. Euskara, gure eguneroko hizkuntza eta lan egiteko tresna izanik, gu gure haurrentzako eredu ere izaten gara arlo honetan. Euskara zuzena erabili beharko genuke eta hori bermatzeko beharrezkoa da hezitzaileen prestakuntza lan orduetan erraztea. IRALEk Partzuergoko hezitzaileentzako eskaintza izan beharko luke.

6.- Enpresak ezarritako kudeaketa murriztailea

Krisia Enpresarentzat izan da aitzakiarik onena hainbat murrizketa ezartzeko eta bere kudeaketa merkatzeko. Hau egiaztatzen duten adibide asko dago, baina orain banaka batzuk baino ez ditut aipatuko:

- Langileen kontratuetan hezitzaileak haurreskola batetik bestera mugitzeko ahalmena ematen zaio enpresari. Pertsonal Kudeaketako buruak ahalmen honen erabilera ohitura bilakatu du, beste hezitzaileen ordezkapenak, liberazioak eta baimenak betetzeko, ordezkoen zerrendako kontratazioari jaramonik egin gabe.

Askotan haurreskola batean beharra ez dagoelako aitzakiarekin, amatasun baimenak ordezkatu gabe uzten ditu; beste haurreskola batean behar bat sortzen denean, hemengo hezitzailea ordezkatu beharrean, lehenengo haurreskolakoa ordezkutzen du eta horretarako mugitzen du. Horrela ordezkapen motzagoa egiten dio langileari, dirua aurreztuz.

Mugimendu hauekin guztiakin haurreskolen hezkuntza proiektuaren kontra joaten dira, azken kaltetuak haurrak eta familiak direlako.

- Joan den abuztuan, hilabete osoa kontratupean egon ziren ordezko batzuei lan egindakoaren zati proportzionala baino ez zitzairen ordaindu lehengo aldiz. Langile horiek ezin izan dute beste lekuetan kontratua eduki eta Enpresak lapurtu die soldataren zati bat, oporrak direla argudiatuz. Hau ez da bidezkoa eta ezin da onartu.

- Ez da betetzen Lan hitzarmeneko borondatezko eszedentziaren arautegia . Bertan zehazten denaren arabera, langileak berriz lanera itzultzea eskatzen duenean, bere kategorian hutsik geratzen den lehen lanpostura bueltatzeko eskubidea du. Enpresak bueltatzea eskatzen zutenean beste kontratu mota bat egingo ziela esaten die eta ordezkoen zerrendaren hurrenkera jarraitu behar dutela. Epailen sententziak argi utzi du Enpresak ezin duela horrela jokatu eta langilea onartu behar duela lan hitzarmenean zehazten den bezala. Argi dago, enpresak LEP-arteako kontratuak moztu nahi dituela, baina langileei dagozkien kalte-ordainak ordaindu gabe, eta lan baldintzak errespetatu gabe.

Sententzia horren ondorioz, Pertsonal kudeaketaren buruak ez omen du LEP-arteako kontratua dutenen borondatezko eszedentziarik onartuko. Azken erabaki honekin Enpresak Lan hitzarmenak diona urratsen du berriro ere, izan ere *Haurreskolak* Partzuergoan urtebeteko antzinatasuna duen langile orok eska dezakelako borondatezko eszedentzia.

7.-LAL (Lekualdatze lehiaketa)

Orain dela 12 urte *Haurreskolak* Partzuergoa sortu zen eta bere hazkundera oso azkarra izan da. Hasiera hasieratik erabakiak hartu dira momentuko beharrak atenditzeko helburuarekin, baina etorkizunean horiek izan zitzaketen ondorioak ondo aztertu gabe. Hori dela eta, adabaki bat beste adabaki gainean jartzen hartu dira erabakiak. Urteen ondorioz sortu den dorrea erortzear dago ezin duelako oreka mantendu.

Haurreskolak Partzuergoan egin ziren lehenengo kontratuak LEP-arteakoak ziren; hau da, plaza betetzen duela finko batek LEP baten bitartez hartu arte (klausula gehigarriak zehazten duen bezala). Bi LEP egon ondoren, kontratu hauek indarrean jarraitzen dute, dakartzan arazo guztiakin. *Haurreskolak* Partzuergoaren matrikulazioa jaitsi da, eta Enpresak Finkoen eta LEP-arteakoen artean kurtso hasieran eta bukaeran hezitzaile "soberan" dituela adierazten du. Behin baino gehiagotan, baieztatu du enpresak, ez duela halako kontratu gehiagorik egingo.

www.steilas.eu

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eu

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eu

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eu

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eu

2008an, **steilas**ek kontratazio mota berraztertzea eskatu zion Enpresari baina ez zuen nahi izan. Bere lehenetasunak bigarren LEPa egitea eta finkoak birkokatzea omen ziren. Orduan, lekualdatze lehiaketaren araudia egin beharrean momenturako prozedura bat asmatu zuen. Birratxikipena bitan egin da araudi eta irizpide desberdinekin.

Oraingoan Enpresak lekualdatze lehiaketa arautzeko beharra izan du, finkoak lantokiz aldatzeko eskubidea garatzeko asmoz. Baina ez da egia; Enpresak lekualdatze lehiaketa honekin LEP-arteoak suntsitzeko tresna bat sortu nahi izan du. Izan ere, LEP-arteoen kontratuak errespetatu gabe, finko bat okupatuta dagoen plaza batera mugitzen denean LEP-arteo kontratu bat iraingituko da. Berrito ere Enpresak, oraingoan LABen babesarekin, Partzuergoan hezitzaileen kontratazioa kaskartzeko tresna bat izango du .

Ez dugu amaitu nahi, esan barik, azken lau urteetan, EAJ sartu zenetik, Eusko Jaurlaritzako ordezkaria den Jesus Fernandez jauna gure mahai negoziatzaileetara bakarrik bitan agertu dela. Jarrera hau lotsagarria iruditzen zaigu, eta 0-3 zikloari zer nolako garrantzi eskasa ematen dion besterik ez du adierazten.

Haurreskolak Partzuergoa ez dago egoera osasungarrian. 12 urte hauetan dirutza inbertitu da EAEn. Eusko Jaurlaritzak ez ezik, Udalek eta familiek ere bere gastu handi bat bideratu dute zerbitzu honetara. Gauzak horrela eman diezaiogun zerbitzu honi merezi duen balorea eta handitu dezagun inbertsio publikoa bere etorkizuna bermatzeko. Azken urteetako kudeaketa -bai Hezkuntza Sailaren aldetik bai Enpresaren aldetik- oso kaskarra izan da. Horregatik, hain zuzen ere, Hezkuntza Sailak zerbitzu honen kudeaketa zuzena hartzeko garaia heldu dela uste dugu. Haurreskolak publikoak, doakoak eta Unibertsalak behar ditugu.

Gaur eta hemen, eskua luzatzen diogu berriro ere, Hezkuntza Sailari ezberdinen akordioaren bidez, denona eta denontzat izango den eta aukera berdintasuna bermatuko duen Hezkuntza sistema baten bidean aurrera pausuak emateko. Jendarte kohesiorako, emakumeak lan munduan aukera berberak izan ditzan eta egoera sozioekonomiko sailenean daudenei laguntzeko, eta oro har, jendartean gero eta esanguratsuagoak diren ezberdintasuna konpentsatzeko funtsezko adin tartea da 0-2. Zaindu dezagun.

Gasteiz, 2016ko ekainaren 8an



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus